

## Ruth Linaza eta Jose Martin Bustinza "Tubi" kirolariak alkarrizketea

10. eta 11. orrialdeak

## Arkeologiako metodologiaren oinarriak ikasten Lemoatxen

Aurten be Lemoatxen, Auzolandegiak antolatu dabez. Aurrekoetan ez bezela, lehenengo txandan, Arkeologia eta antzeko ikasketetako ikasleak egin dabe lan. Bigarreanean, munduko nazino askotatik etorritako gazteak Arkeologiako metodologiaren oinarriak ikasteko aukerea izan dabe. **13. orrialdea**



## Jentilak Diman mendi ibilaldia eta Akelarrea hilaren 14an egingo da

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 323

2019ko urri lehenengoaren 2a hamabostekaria  
www.begitu.org

## Arteako jaiak, udako azkenak

Urri lehenengoaren 6tik 8ra arte herriko jaiak ospatuko ditue Artean. MG Banda eta Erabateraren kontzertuak eta DJ Isma izango dira zapatuan.

Umeak be ondo pasetako aukerea eukiko dabe DJ Xaiborregaz zapatuan, eta Kantu Kolore taldeagaz domekan.

Erromeriak, Apache taldearen kontzertuak, BatucAKKB batukadeak eta Elektrotxarangeak osotuko dabe Arteako jaietako musika eskaintzea.

Gastronomiari jagokonean barritz, Tortilla Lehiaketea, oilasko

jana eta txokolatea dastatu ahal izango dira.

Aurten MerkArtea ez da izango hurrengo astegoienean, urri lehenengoaren 21ean baino. Hau da hurrengo hamabostaldian.

Egun horretan, baserriko produktuen azokea egongo da eta bertsolari, giza proba eta estilo ugaritako euskal musikeagaz gozatu ahal izango da egunean zehar Artean. **5. orrialdea**



Argazkia: Alexander Amor.

### UBIDE

## Furgoneteagaz salgaiak eroan dituan dendariari esker ona adierazo deustie

Mari Loli Lejarretak hogeit bat urte egin ditu, furgonetea hartu eta Ubidera salgaiak errotan. Oin errazoi personalak dirala eta, eginbehar horri itxiko deutso eta ubideztarrak esker ona adierazo gura izan deustie omenalditxo batez.

Abuztuaren 13an, herriko umeak egindako pankarta eta kantuak esan eutsien eskerririk asko. Oparia be egin eutsien ubideztarrak eta bazkaria egin eben alkarregaz. **6. orrialdea**



### IGORRE

## Igorreko "Bakaladerea" arrantzaleen epeiearen erdian egon zan

Urkizu auzoan, Arratia errekearen ertzean egoan. IBESA (Industrial Bacaladera Española S.A.) eukan izena eta 1972an berrogei behargin eukazan, gehienak andrazkoak. Arrantza portuetatik etorren makailoak bertan garbitu, gazitu eta komertzializetako prestetan eben. Urterik onenak 1960ko hamarkadan egin ebazan eta 1970eko hamarkadan zarratu zan. Alvaro Rabellik Bakaladerearen historia kontetan dau erdiko orrialdeetan. **8. eta 9. orrialdeak**

**E P A**  
Galdakao  
www.epagaldakao.com  
Matrikuletako epea, iraila osoa.  
Tlfn. 94 456 60 98  
Helduen heziketa  
E.P.A.  
Elexalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2, liburutegia (Lemoa)

### BEDIA

## Arratiako saneamentuko urak Galindora

Oin arte, Bediako Hondakin Uren Araztegiak (HUA) tratau izan ditu Arratiako saneamentuko urak, baina laster Galindoko araztegiari tratauko dira. Izan be, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Bediatik Usansoloraino kilometro t'ardi inguruko kolektorea egingo dau horretarako. Konexinoa egindakoan Bediako araztegia zerbitzutik kanpo geratuko da.

Kolektorea egiteko lanak lehiaketara atera ziran 3,8 milioe euroko aurrekontuagaz, BEZa barik, eta 18 hilabeteko bete-arazpen-epeagaz. Ur Partzuergoak obrak datorren urtearen hasieran abiarazotea aurreikusten dau. Lanon helburua, besteak beste, euriteak dagozanean, Bediako araztegiak gainezka egiteko arriskua ekiditea da. **6. orrialdea**



# Literatura txokoa

## NIK SINESTEN DIZUT

Samara Veltek (Zarautz, 1991) hasikera hasikeratik harrapatu nau bere liburu honetan, hitzaurretik, edo izenburutik bertatik, "Ehunte baten istorioa" dala esaten dauan berbetatik. "Iruñeko kasuak oso argi erakutsi digu nola gurutzatzen indarkeria sexistaren forma ugari kasu bakar batean".

Kapituluka sailkatu dau Samara Veltek liburua, atalka. Atalen baturak osotasunera garoaz, gorputz osora, gure gizartearen ekosistemara. "Helburua da, bortxaketaren kultura deitzen zaion hori aletzea, ulertzea eta deszifratzea; hain zuzen ere aldatzeko".

Azala da lehen atala, *Urte be-  
rean bi txupinazo egon zirenekoa*  
azpitolua emon deuto. Eta has-

teko beste indarkeria matxista kudel baten testigantzeari ekiten deuto idazle-kazetariak: "2018ko urri amaiera Iruñean. Gizon batek bere bikotekidea hil zuen; etxeare su emanda zauritu zuen eta andrea ospitalean hil zen gerora (...). Ordu batzuetan suaren orbainak lortu du isildutako errealitate bat espazio publikoan ateratzea: indarkeria bazter guztietan dago, ikusteko prest dagoenarentzat, bederen".

*Begiak* deitzean da laugarren atala. *Gizartea epaile bihurtu zenekoa*. Atal honetan komunikabideen, hedabideen, sare sozialen zein jendar-tearen eretxiak aztertzen ditu Veltek, alkarrizketatu dituan hainbat pertsonen eretxiak gehituz. Susana Perez Soler kazetari katalanaren berbak: "Bi narritaba mota nagusitu ziren komunikabideetan: Epaiketak iraun zuen bitartean, ohikoa zen biktimaren kontakizuna auzitan jartzea; be-

hin sententzia argitaratu zutenean, ordea, indarra hartu zuten eraso sufrututako gaztearen aldeko diskurtsoek". Nola azaldu leiteke bat-bateko aldaketa ha? Perez Solerren ustez, eretxi publikoan eragin eban faktoreetako bat da tartean Martiaren 8 jendetsu ha gertatu izana, "Nik sinesten dizut lelopean".

*Hitzen botereaz* be jarduten dau kapitulu honetan. Berbak ez dira karga bakoak. Hara zer dinoan Veltek: "erasotzaile talde bati manada, animalia saldo edo piztiak deitzerakoan, adibidez, metafora erabiltzen ari gara... gizon ez humano bat, instintuz jokatzen duena, eta bere burua kontrola ezin dezakeena. Funtsean, errugabediskurtso bat da (...). Horregatik egin zioten uko hainbat talde feministak eta hedabidek manada hitza erabiltzeari".

Nik sinesten dizut, "San Fermi-

Samara Velte

**Nik sinesten dizut.**  
**Bortxaketaren kultura eta sanferminetako kasua**

**Txalaparta, Berria, Elkar eta Jakin argitaletxeak**

148 orrialde



netako bortxaketaren berezitasuna erasoari emandako erantzun soziala izan zen. Nik sinesten dizut leloak sintetizatu zuen erantzun hura. Mugimendu feministak protestetarako aukeratu zuen aldarri hura, eta milioika heritarrek bereganatu zuten: 'Sinesten dizut, badakidalako niri ere gertatu ahal zaidala'. Leloak agerian utzi zuen hari fin eta luze batek lotzen dituela indarkeria sexistaren kasu guztiak, komisariatetik hasi eta jai gune alaieneraino".

*Gorputza. Oihan ordenatua* erradiografia egiteko darabilen azken atala da. "San Fermine-takoa ez zen salbuespen bat, baina balio izan zuen eraso orenen atzean dagoen egitura patriarkal biolentzia azaleratzeko".

Samara Veltek 2015ean Ricardo Arregi Kazetaritza Saria jaso eban. Komunikatzaile bikaina izatearren eskerrak emotea besterik ez jata gelditzen.

**Errose Aurrekoetxea**

## TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

#### Urri lehenengoaren 2tik 8ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

#### Urri lehenengoaren 9tik 15era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

#### Urri lehenengoaren 16tik 22ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

### Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

### Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

### Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

### Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notariotza

94 673 92 26

### Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jai egunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jai egunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jai egunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jai egunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi orduko behin.

Jai egunetan: 08:45etik 20:45era bi orduko

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jai egunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jai egunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi orduko

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jai egunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jai egunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzeoko Ugauraino. Jai egunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaoitik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jai egunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jai egunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaoitik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jai egunetan ez dago zerbitzurik.

Ermibarri-Arriorriaga

Jai egunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermibarri

Jai egunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jai egunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jai egunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Alvaro Rabelli eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.



**zertu**  
kultur elkartea

## Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Lotsagarria

Igorreko San Juan auzoan bizi naz eta bertan egunero gertatzen dana lotsagarria da.

Urte batzuk dira non, nahiz eta Orobi auzoan Garbigunea egon, hainbat "gizakik edo bi hankako aberek" euren pekoratzak-zaramak garbigunera eroan baino, toki ederra topau izan dabela San Juan auzoan, bariante azpi honetan.

Erretratuak atera dodaz eta ez dira egun batekoak. Eta handik pare bi egunera, ingurua ez da garbitu. Ez. Abuztuaren 19an bardin darrai. Hilabetea pasata daroe bertan obra hondakinak edo eskonbro boltsak, okindegiko hainbat urun zaku (10 bat edo... Ez dira etxe batekoak), parabolikak, hozkailuak, edozein motatako altzariak... Eta oindino txarrago: bariante azpian koxteak konponduten dabez, olioia eta freno pastillak aldatu... dana bertan itxita. Batzuetan gaua erabilten dabe holangoak egiteko, beste batzuetan ez dira lotsatzen eta egunehar zehar egiten dabe.

Okerrena da ez dala hor amaitzen. Gero txatar biltzaileak pasetan dira eta bertan topautakoa

apurtu, burdina eta kobrea eroan eta beste guztia bertan ixten dabe... Bazter guztietatik botata.

**BERNARDO URETA PEÑA "URPE"**

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**BEGITU ALDIZKARIA**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Txingor



Atmosferako temperatura hotza dala-eta, hotzaren hotzez leiturik jausten dan euri-tantakada gogortuari esaten jako txingor edo txingorea (txingorra edo txingorea, ahoskatuta). Batuan, kazkabar da. Lei zatitxoa txingorra baino handiagoa bada abazuza/abazuzi esaten jako, eta ukubil baten tamainukoa bada harria. Udako txingorradetan egiten dauan harria baino txikerragoa danari, Arratia inguruan, inetasi deritxagu (iñetásie, ahoskatuta Lemoan), initasi (Igorren eta Diman), linitasi (Zeanurin) edo edur-txingor.

## ERETXIA

### Besoak zabalik, besoak itxita

Open Arms (Besoak zabalik) Mediterraneoan erreskate lanak egiten dituan itsasontzi baten izena da. Lau urtetan, izen bereko erakunde sortu zanetik, itsasontzi honek 59.866 personen bizitzak salbau ditu. Arratiako Udalen Mankomunidaderen populazioa halako lau baino gehiago. Hirurogei mila persona horreek barriro jaio eta bizitza duin bat topatzeko bigarren aukerea izango dabe.

Europako herrialdeen itsas armadak (Mare Nostrum) erreskate operazioak kendu dituanetik, Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) egin ditue salbamentu lanak, gerretatik, jazarpenetatik eta pobreziatik igesi Europara heltzean saiatzen diran personengan disuasinoko eragina izan gura daben "ito daitezela" politikea onartu barik. Politika hau, izatez krudela, okerra da gainera. Izan be, Afrikako iparraldera heldu diran personak, askotan urteetan sufriduta, ez dira pateretan igo barik geratuko itota hiltzeko arriskuagaitik. "Mediterraneo erdikaldean, 2018ko urtail eta garagarrit artean Europara abiatutako 18 personako, heriotz edo desageritze bat gertatzen da".

Zelan egin diran erreskate lanak Mediterraneoan, Europar Batasun eta bera osotuten daben herrialdeetako gobernuen migrazio politiken garapenaren isla da. Kolaboraziotik, GKEk arazoak ebezan ontzien lokalizazioaren informazioa pasetan eutseen erreskate itsasontziaz, europar erreskate operazioak kentzera pasau da. Gero, portuak itxi dabez (Malta, Italia) erreskateatutako personak portu seguruetan lehorreratzea eragotziz. Ondoren, herrialdeak euren banderapeko itsasontziaz galarazo deutsee erreskate lanak egitea. Eta momentuz atzenengo pausua, itsas salbamentua egiteagaitik errepre-sinoia, isunak eta kartzela zigorrak



### GERMÁN GARCÍA MARROQUÍN

Ongi Etorri Errefuxiatuak  
Plataformako kidea

ezartzea izan da.

2018ko martian, SOS Mediterranée eta Médicos Sin Fronteras-en Aquarius itsasontzia baino ez zanean itsasoan geratzen, Italiaren estrategia erakunde kontrako eraso judiziala izan zan; erakundeoi erakunde kriminalak izatea eta giza trafikioan parte hartzea leporatuz. Kanpaina honetan oinarrituta, Salvinik portuak ixtea agindu eban.

GKEetako erreskate itsasontzi guztiak, oztopo eta galarazpenak izan ditue. 230 persona barruan dituan Alemaniako Lifeline itsasontzia; Sea-Watch alemaniarrek be salatu eban Maltako autoridadeak atxilotu ebela Sea-Watch 3 erreskate misinoan joanean; SOS Méditerranée eta Médicos sin Fronteras erakunde Ocean Viking itsasontzia be, abuztuaren 20an, Libiako kostaldearen parean erreskateatutako 356 migra-tzaile, Italian edo Maltan egoan lehorreratze baimenaren zain...

Espainiako gobernuaren kasuan, Salvamento Maritimo Humanitario taldearen Aita Mari itsasontziari erreskateetan parte hartzea galarazoten deutso eta Open Arms-a sei hilabetez blokeata euki eban tripulazioak amarrak askatzea ebatzi eban arte, "bagoaz, gurago dogu preso egon konplize izan baino" eta "kartzelatik urten egiten da itsaso hondotik ez" esanez.

Abuztuaren 2an Open Arms-ek 124 persona erreskate eban. Hogei egun behar izan ziran lehorreratze urtenbidea

topatzeko, Italiako Fiskaltzaren bidez, tripulazio eta itsasontziaren etorkizunaren urtenbidea konpondu barik.

Itsas Zuzenbide Humanitarioak, itsasoan arriskuan dagozan persona eta ontzi guztiak laguntzera behartzen dau.

EBko herrialdeetako gobernuak GKEak erasotzen ditue ez diralako kapaz migratze politika bateratua egiteko, ezta Mediterraneoan erreskateatutako personak automatikoki banatzeko kuantak ezartzeko be; gizatasun eza erakutsiz eta asilo eskubidearen oinarria apurtuz.

Migratzeko eskubidearen gaineko eztabaida dago gizartean: besoak zabalik daukan politika baten alde gagozanak, buru itxiak dituenen aurrean. Gobernuak jakin arazo behar deutsegu, gehiago garala lehenengoaren alde gagozanak eta ez erabilteko herri-tarrak migratzaileak ez hartzeako errazoi moduan. Euren benetako errazoiak ideologikoak dira kasu batzuetan, eskoi muturra, esaterako; politikoak beste batzuetan, eskoi mutur horri bildurragaitik edo-eta ekonomikoak, behar ez diran segurtasun neurri oker eta xahutzaileak ezartzen dituen enpresen interesengaitik.

Eta itaun asko dagoz, gobernuak erantzun garbiak emotea gurako geunkenak: Zergaitik hasi dira, gerra, jazarpen eta miseriatik igesi doazanak kriminalizetan? Zergaitik pasau da GKEak kolaboratutako euren lana eragotzi eta euren lanaren gaineko dudak sortzera? Zergaitik EB ez da kapaz izan Italia zigortzeko legeria ez beteteagaitik eta danak segiduan zigortzen dabe Open Arms-a legeak beteteagaitik? Zergaitik Espainiako gobernuaren helburua da Open Arms eta Aita Mari itsasontziak ez egotea Mediterraneo erdikaldean? Zergaitik gobernu guztiak ezer egiten ez dabela zuzituzko migratze mobimentuen urtenbidea Europa mailako izan behar dala esaten dabe eta ez dabe azaltzen zergaitik urteen joan-etorrian ez dira izan kapaz urtenbidea topatzeko?

**\*Erredakzinoan itzulia**

**BATZ** 50 urte  
BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)  
IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA



## LUMATUTEN



**MAITE ARTABE  
URKIRI**

**"Cansao" de ser  
hombre**

**G**ogoratzen dozue Manolito Chinato, poeta rockeroa? "Qué importa ser poeta o ser basura" inoana? Extremoduro eta Platero y Tú-rentzako idatzi eban eta eurakaz batera Extrechinato y Tú proiektua aurrera eroan, *Poesía básica* albuma argitaratuz.

Uda honetan bere jaioteritik, Puerto de Béjar-etik, pasau naz eta abeltzaintzatik eta bertan daukan tabernatik bizi dala jakin dot. Jarraitzen dau idazten eta bertan eukien salgai bere azken liburua.

Itzuli barik doan poesia hau irakurri deusat bertan:

*Busco en el monte/la soledad de mi alma/y en la noche de luna/aúllan los lobos llamándome,/y yo, "recostao" en un árbol grande,/aúllo en silencio/porque aúlla mi sangre;/que ya estoy "cansao" de ser un hombre,/y quiero ser yo, sin dios y sin nombre.*

Batzuetan poetak lau lerrotan adierazoten dabe filosofo edo antropologoak saiakera oso baten azaltzen deuskuena.

Poesia horretan erakusten deusku Chinatok zein nekosoan dan generoaren estereotipoen barruan bizi behar izana. Norbere izakera muga horreetara egokitu beharrak geure benetako identitatea ahazteraino erooten gaituala eta. Eta bere bila joan gura badogu beharrezko dogula bakardadea, isiltasuna eta daroagun bizimoduaren martxea eten eta egonean egotea norbere buruagaz.

Bistan da rockeroak be espiritual puntu bat hartzean dabela edadeagaz, baina beti errebeldea Manolito Chinato, edozein sistema kateatzaileraren kontrakoa bere askatasun eta identitatearen defentsan, baita genero sistemearen kontrakoa be.


Poztu naz rock radikalaren sasoikoak bizirik eta iraultzaile jarraituten dabelako.

Horixe izan da nire azken oporetako bizipen gogokoenetako bat, hurrengoan kontauko deusuedan Margarita Xirguren presentziagaz batera.

## ZERTZEAN



**AMAIUR SANTOS**



## BEGI TXINDORRA

**N**oruegan ateratako uda giroko argazki hau bialdu deusku Itziar Etxebarria Totorikak, egunerokotasunean murgilduta gagozanean, zarata artean eta presaka, berak han sentidutako isiltasuna eta bakea sentidu daiguzan.

Itziar Etxebarriak egin dauan moduan, udako momenturik ederrenak BEGITUKO irakurleakaz konpartidu eta sari eder bat eroateko aukerea izan gura badozu, bialdu zure argazkiak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera urri lehenengoaren 25a baino lehenago.

Zorte on!



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscsl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinikoa  
Marina Uriagaitza Aldekoa  
Odonatologia  
Bidebarri 1, behea  
48143 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zentratuta 101  
R.F.S. 21/06

**ASESORÍA  
Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Schubertzi Agim 11  
**Erroitz**  
Agimian gorriak ezan.

## LEMOA

# Udalak salerosketak euskeraz egiteko kanpaina abiatuko dau



### Erredakzioa

Lemoako Udalak, herriko merkataritza sustatzeko, bertako komertzio eta establezimientuak ezetuten emoteko eta euskeraren erabilera areagotzeko kanpaina bat ipiniko dau martxan urrietan. Kanpainearen leloa, "Lemoan saldu eta erosi euskeraz" izango da eta 26 komertziok hartuko dabe parte.

Kanpainak zati bi izango ditu. Lehenengoa urrietan izango da eta agurrak euskeraz egitegaz hasiko da. Bigarrena, zemendia eta abendua bitartean izango da eta euskeraz eskatzean zentrauko da.

### Biajea eta bonoak zozketan

Parte hartzean daben komertzio horreetan konsumidutean agurra

euskeraz egin ezker, konsumitzailea zerrenda baten sartuko da. Urri lehenengoan batutako zerrenden artean, 300 euroko 5 bono zozketatuko dira, eta urri bigarrean batutakoak 300 euroko 4 bono eta 1.500 euroko bi baje bat. Zozketak urri bigarrearen 7an eta zemendiaren 4an izango dira hurrengo hurrengo.

Hirurehun euroko bonoak 26 komertzioen artean erabili behar izango ditu irabazleak; hau da, 11,5 euroko 26 bono izango ditu. Bonoak abenduaren 31ra arte erabili ahal izango ditu eta komertzio bakotxean horri jakokun bonoa baino ezin izango dau erabili. Ordaindu beharreko kopurua 11,5 baino gutxiagokoa bada ez da dirurik itzuliko eta galarazota dago bonoen truke dirua jasotea.

## ARTEA

# Apache eta MG Bandaren kontzertuak jaietan

Arteko jaiak zati bitan bananduta egoten dira:

andamariak eta MerkArtea. Andamarietan,

Apachek, MG Bandak eta Erabatera taldeak eskainiko

dabez kontzertuak. Erromeria jagokienean, Lehian,

Jokaldi eta Luhartz taldeak animauko dabez gauak

zein domekako arrastia.

### Erredakzioa

Gainera, Areatzako BatucAKKB batukadeak, Rockalean Elektrotxarangeak eta DJ Isma igorretarraren musikeak girotuko dabe herria jai egunetan. Umeak be eurentzako musika eskaintza izango dabe egunotan, izan be, DJ Xaiborrek, play-backak eta Kantu Kolorek ipiniko ditue jantzan txikerrenak.

MerkArtea aurten hilaren 21ean izango da. Goizeko 10:00etatik 15:00etara Barazki eta Artisautza Azokeak hartuko dau protagonismoa. Bertatik ibiliko da Euskorleans Elektrotxarangea, eta Uxue Alberdi eta Sebastian Lizaso bertolariakaz poteoan egiteko aukerea egongo da.

Giza proba erakustaldia be egongo da; baita, besteak beste, umeentzako puzgariak eta jolasak, Korrontzi taldearen ikuskizuna eta Gora Herria taldeagaz erromeria.

### Urri lehenengoak 6, barikua

18:00etan, txupinazoa Kultur Etxean eta Areatzako BatucAKKB batukadea herrian zehar.

20:30ean, oilasko jana.

21:30ean, Rockalean Elektrotxarangea.

23:00etan, kontzertua: Apache.

02:00etan, erromeria Lehian taldeagaz.

### Urri lehenengoak 7, zapatua



11:00etan, umeentzako puzgariak eta jolasak frontoian. Tortilla Txapelketea plazan.

14:00etan, Tortilla Txapelketea sari banaketea eta tortillen dastaketea plazan.

14:30ean, bazkaria.

18:30ean, DJ Xaibor Batzokiko plazan eta umeen play-backa.

20:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz plazan

23:00etan, kontzertuak: MG Banda eta Erabatera taldeak.

02:00etan, DJ Isma.

Mozorro gaua. Gaia: 1960, 1970 eta 1980eko hamarkadak.

### Urri lehenengoak 8, domeka

11:30ean, mezea.

12:30ean, Kantu Kolore.

18:00etan, erromeria Luhartz taldeagaz

20:00etan, txokolata.

21:00etan, jaien amaiera.

## ZEANURI

# Eusebio Larrazabal eta Miren Zuluaga nagusi Bola Txapelketan

### Jon Urutxurtu

Eusebio Larrazabalek gizonetzkoetan eta Miren Zuluagak andrazkoetan eskuratu dabe 2019ko Zeanuriko Bola Txapelketea.

Gizonetzkoen finala San Lontzon jokatu zan, abuztuaren 11ko arrastian, San Lontzo bigarrean, eta bertan aurtengo udan auzuneetan jokatu diran bost txapelketako -Altzuakoa, Undurragakoa, Ipiñaburukoa, San Justokoa eta San Lontzo bertakoa- lehen lau sailkatuak hartu eben parte. Larrazabalek hiruko jaurtiketa bategaz lortu eban txapela, baina "gerrea" jokatu behar izan eban beste zortzi bolarien aurka. Larrazabal Atzuako eta Undurragako txapelketetan be nagusitu zan.

Bigarren eta hirugarren lekuetan Juantxo Ozerinjuregi eta Esteban Ozerinjuregi altzuarra sailkatu ziran. Aitagarria da Estebanen kausa, laurogeta hiru urte ditu eta urtero hutsik egin barik auzune guztietako bola txapelketetan parte hartzean dau. Esteban Ozerinjuregi finalera sailkatuen arteko bolariarik beteranoena izan bazan, gazteena 16 urteko Danel Beitia otzemenditarra izan zan, 2017 urtean txapela jantzi eban bolaria.

Bolalekua Gorbeialdek itxitako karpakaz estalita euki eben eta horri esker txapelketea jokatu ahal izan zan, egunean zehar eurria egin eban eta.

### Miren Zuluaga andrazkoetan

Goizean jokatu zan andrazkoen txapelketea. Miren Zuluaga izan zan txapela jantzi eban bolaria. Bigarren eta hirugarren lekuetan Kasilda Egiluz eta Anita Astondoa sailkatu ziran. Lehen hiru leku honiek "gerrea" jokatu ebatzi ziran.

Zeanuriko bolarien hurrengo hitzordua Altzutan izango da urri bigarrearen 5ean, San Migel jaietako egitarauaren barruan; Kofradien Arteko Taldekako Txapelketea jokatu da bertan. Udallerria osotuten dabezan zazpi kofradietako ordezkariak hartuko dabe parte, talde bakotxa lau bolarik osotuta.



Gizonetzkoetan lehen hirurak, ezkerretik eskoira: Juantxo Ozerinjuregi, Eusebio Larrazabal eta Esteban Ozerinjuregi.

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

Gora Andra Mariak!



Arteko Udalak eta Jai Batzordeak  
JAI ZORIONTSUAK  
OPA DEUTSUEZ



## IGORRE

## Arratia Motor Taldearen XVIII. konzentrazioa

## Erredakzioa

Urri lehenengoaren 7an, Arratiako motorzaleak topaketea eta bailaran zeharreko ibilbidea egingo dabe. Bazkaria, jolasak eta kontzertuak be ez dira faltauko hamazortzigarren edizino honetan.

Parte hartzaileak izena Igorreko Berezi tabernan emon behar dabe goizeko 10:00etan. Izena emoten daben lehenengo 250ak, kamiseta bana izango dabe opari. Izena emon ostean ibilbideari ekingo deustie eta pintxoak jateko geldialdiak egingo

dabez. Helmuga Igorreko eskolatan izango da.

Bazkarirako izena emon dabenak alkarregaz bazkaldu eta bazkalostean, motorren munduaren inguruko jolasak egongo dira. Kontzertuak 18:00etan hasiko dira. Lehenengotik Suger taldeak joko dau eta ostean, Rockovers taldeak. Izena emon dabenak burrunzi-pintxoak dastatzeko aukerea izango dabe.

Kontzertuen atsedendian, sari banaketea egingo da eta opari ugari zozketatuko dira: spa zirkuituak, bazkariak, afariak, eta abar.

**ARRATIA MOTOR TALDEAREN XVIII. KONZENTRAZIOA**  
**XVIII CONCENTRACIÓN ARRATIA MOTOR TALDEA**

2019ko Irailaren 7an  
Taberna Berezi (Igorre)

7 de septiembre de 2019  
Taberna Berezi (Igorre)

10:00 – Izen-emotea. Lehenengo 250eri kamiseta oparitutako jakie.  
Precio 10 €

11:00 – Arratiako bailaratik ibilbidea, pintxoak jateko geldialdia barne.

13:30 – Helmuga Igorreko eskolara.

14:30 – Bazkaria izena emon dabenentzat eta ostean jolasak.

18:00 – Telonero bezala "Suger" taldea eta ostean "Rockovers" kontzertua. Pintxo-moruno izena emon dabenentzat.

\* Atsedendian, sari banaketa eta opari zozketa.

10:00 – Apertura de inscripciones, camiseta para las 250 primeras.  
Precio 10 €

11:00 – Ruta por el valle de Arratia, con parada para picotear algo.

13:30 – Llegada a las escuelas de Igorre.

14:30 – Comida para las/os inscritas/os y entretenimientos varios.

18:00 – Concierto de "Rockovers", con el grupo "Suger" como teloneros.  
Pincho moruno para las personas inscritas.

\* En el descanso, entrega de premios y sorteo de regalos.

Sariak  
Spa zirkuitoak  
Bazkariak, afariak  
Eta abar ...

Premios:  
Circuitos de Spa.  
Comidas, cenas  
Etc...

Motorren konzentrazioa eraldatzen duen erakundeak programa aldatzeko eskubidea dauka, eta zirkuituak kodere erantzukizunarekin behar du. Erakundeak ez du erantzukizunik onartuko.

## ARRATIA

## Kale antzerkia eta bertsolariak Elizondoko andramarietan

## Erredakzioa

Urri lehenengoaren lehenengo hamabostaldi honetan, esate baterako, San Antolin (sainduniak edo sandoniak) eta Andramariak ospatzen dira. Dimako Oban sainduniak ospatu ditue, eta Lemoatxen San Antolin jaiak. Lemoatxen, Baba Lehiaketea eta erromeriagaz, hain zuzen be. Obako jaietako egitarauak lau egun hartzean ditu, abuztuaren 30etik urri lehenengoaren 2ra arte. Antzerkia, Bola Txapelketea, goitiberak, auzo bazkari eta afariak eta beste jarduerak asko egon dira programautu egun horreetarako.

Andramarietan, Lemoako Elizondoko auzunean ospatuko ditue jaiak.

## Elizondo (Lemoa) andramariak Urri lehenengoak 7, zapatua

10:00etan, Eskolarteko Txirriindulari Lasterketea.

13:00etan, poteo musikatu Bikandi tabernatik hasita.

15:00etan, bertso-bazkaria. Bertsolariak: Jone Uria eta Arkaitz Estiballes.

17:00etan, Harrobiko Andra Mari Futbol Txapelketea Arlonagusian.

19:00etan, Taberna Ibiltaria, poteo musikatu.

## Urri lehenengoak 8, domekea 12:00etan, mezea.

17:00etan, umeentzako jolas eta tailerrak.

19:00etan, *Kalegorrian* kale antzerkia.

## BEDIA

## Arratiako ur zikinak Galindora eroateko konexinoa egingo dau Ur Partzuergoak

## Erredakzioa

Bediako Hondakin Uren Araztegiak (HUA) tratetan dauz Arratiako saneamentuko urak. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Bediatik Usansoloraino kilometro t'erdi inguruko kolektorea egingo dau, Galindon sistemen arteko konexinoa egiteko. Horretarako lau miloe inbertiduko ditu.

Konexinoa egindakoan Bediako HUA zerbitzutik kanpo geratuko

da. Galindoko konexinoagaz Arratiako hondakin urak hobeto kontrolau eta kudeatu gura ditu Partzuergoak eta euriteak gertatzen diranean gainezka egiteko posibilitadeak murriztea. Lanak lehiaketara atera ziran 3,8 miloe euroko aurrekontuagaz (BEZ barrik), eta 18 hilabeteko betearazpen-epeagaz. Ur Partzuergoak obrak datorren urtearen hasieran abiarazotea aurreikusten dau.

## Geltokiko irisgarritasuna hobetu

Bediako tren geltokiko irisgarritasuna hobetuteko proiektua be lizitautu dago. Euskal Trenbide Sarearen proiektu honek lau hilabeteko betearazpen-epea eta 354.653 euroko oinarritzko aurrekontuatu ditu.

Lanon helburua tren geralekuko irisgarritasuna hobetutea da. "Trena baino 20 bat zentimetro bajuago dago nasa. Lanak trena eta nasa maila berean ixteko dira. Ze, barbarako, gupildun aulki bategaz joan ezker, ezinezkoa da trenera igotea, eta umeen karroakaz be, jeisteko laguntzea behar da" azaldu deutso BEGTuri Aitor Soriketa Bediako alkateak.

Nasara joateko aldapak be leundu ditue eta geralekuko argiztapena be hobetuko da.

## UBIDE

## Hogei urtez autoagaz etxez etxe saltzean ibili dan dendariak itxiko dau beharra

## Erredakzioa

Dendariak, etxez etxe eta baserri baserri produktuak eroateari itxiko deutso errazoi personalak dirala-eta. Ubideztarrak esker ona adierazoteko ekitaldi bat egin eutsien abuztuaren 13an. Ume zein nagusi, herri txiki honetako herritar askok hartu eben parte egindako omenalditxo hunkigarri horretan. Ubideko herritar batek hurrengo kronikea bialdu dau.



## Eskerrik asko Mariloli, Ubiden maite zaitugu

Abuztuaren 13an Ubideko herriak Loli-Leire dendako Mariloli Lejarretari esker ona azaldu eutsan. Marilolik hogei urte egin ditu furgoneta bategaz baserri baserri eta etxez etxe elikagaiak, garbiketa produktuak eta danetarik saltzean, Ubideko umeak prestatutako abestiak dinoan moduan.

Ubideko herritarrek, Mariloli ikaragarri maite dabe. "Andra sano jatorra izateaz gainera, beti umore onez etorten da, zerbitzu integrala emoten deusku, furgonetan erosketak egin eta sueteraino eroango deustus erositakoa. Oso etxekoa, gertukoa, da", dino andrazko batek.

"Hogei urte honeetan begira zenbat edur, eurite, izotz, bero zapatsu eta abar egin dauan. Ha-ta guzti be, Mariloli martitzenero goizeko bederatzietarako Ubiden, ez dau hutsik egin" dino hunkiturik beste herritar batek. "Ubideztarrak sekula ez dogu haserre ikusi, beti irribarretsu eta bere lanean jator baino jatorrago. Produktu onak eskaintzeaz aparte txukun eta dotoreziat entregauz" dino beste andrazko gazte batek "nik gainera Whatsapppe egiten deustat eskaerea eta etxean ixten deusta dana" gehitu dau.

Landa eremu batean eta Ubide lango herri baten holango andra baten prestutasuna izatea urtearen balioaren parekoa deritxe ubideztar askok. "Emon izan deuskun zerbitzua eskertzekoa baino ez da".

"Abuztuaren 6an erosketak egiten nenbilala, jakinarazo eustan denporaldi baten ez dala etorriko; begietatik malkoak isurtzen jakozala esan eustan" azaldu dau astero erosketak etxe aurrean egiten deustazan ginonezkoak. "Ulertzen dogu: bere amak osasun arazoak ditu eta ama zaintzeko ardurea hartu dau". Herritarren eretxia da "andra leial eta zintzoa" dala, "eztizko bihotz handi bat daukana". Berba barik geratzen dira gehienak.

## Esker ona

Ubideztarrek aitaren baten ebatzi eben Mariloliri bihotzetan loraturik eukiena, herritarren artean isilean egoan sentimentua, berari aurrez aurre esateko zerbaist egitea. Eta halaxe egin eben: abuztuaren 13an, Mariloli bere furgonetan erdi bahituta plazara eroan eta herriko umeak egindako pankarta baten idatzita eukien abesti bategaz jantza eginez esan eutsien eskerrik asko. Plazan bildutakoan artean askok atera behar izan eben zapitxoak malkoak xurgatzeko. Herritar batek herritarren bihotzetan dagoana bertso baten abestu eban eta amaieran danak batera kantau eben: Eskerrik asko Mariloli, Ubiden maite zaitugu. "Ubidek Maitasunez" egurrean tailautu eukan erloju zoragarri bat emon eutsien opari. Marilolik hunkiturik jaso eban.

Ubideko herriak besarkada bat heldu arazo gura deutse Mariloliren ahizpa Leire eta honeen amari. Eta zelan ez gogoan izan urteetan Mariloligaz martitzenero Ubidera etorten zan bere aita Agustín! "Ubideztarrek beti bihotzez maiteko dogun familia da" esanez amaituten dau ubideztar heldu honek.



## BEDIA

# Edadekoen eskaerak jasota jarduerak eratu ditu Udalak

### Erredakzinoa

Bediako Udalak, galdetegi bat heldu arazo eutsen herriko edadekoai. Heren batek erantzun eban eta hortik diagnostikoa egin eben. Diagnostikoaren ostean jarduera proposamena egitea ebatzi eben urtailean. Garagarrileko Osoko Bilkuran jarduera proposamena onartu zan. Urtea amaitu baino lehenago hainbat jarduera gauzatzeko asmoa adierazo deutso Aitor Sorriketa Bediako alkateak BEGITURI. Aurten martxan ipini ezin diranak hurrengo urteetan abiatuko dituela dino alkateak.

2019an, telefono bidezko laguntzarako zerbitzua ezarri gura dabe hamabostean behin eta aurrez aurreko laguntza zerbitzua be ipiniko dabe martxan asteen behin, Gurutze Gorriaren eta boluntarioen lankidetzegaz.

Jubiladuen etxearen eskaeria be egon zan galdetegietan. Proiektu hori ezin izango da aurrera atera aurten, baina Udalak

gela bat ipiniko deutse edadekoai eskoletan alkartu daitezana.

Edadekoen osasuna hobetuteko, urri bigarrenetik aurrera, geriatría-masajea egongo da asteen behin, eta Josu Novo psikologoaren eskutik, *Nire lekua munduan* izeneko 20 orduko ikastaroa be egongo da. Ikastaro honen helburuak, partaideen autoestimua hobetutea eta bakardadeari aurre egitea izango dira, besteak beste.

Aisialdiari jagokonean, hainbat ikastaro, ibilteko taldeak eta txangoak eskatu dabez galdetegiari erantzun deutesienak. Ikastaroetara eta aisialdi eskaintzako jardueretara joan ahal izateko, Gurutze Gorriaren auzo-taxi zerbitzua egongo da.

Beste eskakizun asko hurrengo urteetan egiteko geratuko dira. Beste batzuen artean, autogestioautako jubiladuen etxe bat; eguneko zentroa eregitzeko bideragarritasuna aztertzea; bazkari eta afariak etxera eramateko catering zerbitzua eta asteen behineko podologo zerbitzua.

## ARRATIA

# Izena emon daiteke udalak antolatutako hainbat ikastarotan

### Erredakzinoa

Hastear dagoan 2019-2020rako Arratiako udalak, ikastaro eta tailer eskaintza zabala egin dabe eta gure eremuko herri gehienetan, Yoga, Pilates, Zumba, Eskulanak eta gimnasia motaren bat edo beste egin ahal izango da ikasturte osoan, prezio onean. Jantzak eta informatika ikastaroak be arrakasta izaten dabe eta herri askotan ikasi daitezke. Lemoan, jateko osasuntsuak sukaldatzen ikasteko aukerea egongo da.

### Artea

Arteko Udalak, 2019-2020 ikasturterako, ume eta nagusientzako *Dantza, Eskulanak, Arte aplikatuak, 3. adineko gimnasia, Zumba, Yoga, Pilates* eta *Tonifikazio* ikastaroak antolatu ditu. Ikastarook urri bigarrenean hasi eta bagilean amaituko dira.

Izena emoteko epea urri lehenengoaren 9tik 20ra izango da.

### Bedia

Urri lehenengoaren 4tik 20ra, Bediako erredakzinoa eta 23tik aurrera, lekuri balego, Bediako ez dagozanak errolatuta, emon daikie izena 16:30etik 19:30era, Liburutegian, Udalak errotutako ikastaroak egiteko. *Egurra lantzen, Pilates, Yoga, Zumba, Korru jantzak, Umeentzako euskal jantzak, Eskupelotea eta palea, Soinketa hipopresiboa, Ingelesa: mintza praktika, Euskera* eta *Eskulanak* osotuten dabe 2019-

2020 ikasturterako eskaintzea.

Prezioai jagokienean, 50 eta 100 euro artean dago Bediako errolatuentzat eta 100 eta 200 artean Bediako erroladuta ez dagozanentzat.

### Dima

Udalak antolatutako ikastarotan izena emoteko epea zabalik dago urri lehenengoaren 6ra arte eta hurrengo asteen hasiko dira. *Yoga, Eskulanak, Pilates, Entrenamendu funtzionala, Gimnasia hipopresiboa* eta *Zumba* ikastaroak osotuten dabe Dimako Udalen eskaintzea.

Taldeak aurrera eramateko gutxienez 8 persona apuntatu behar dira eta gehienez 12. Leku kopurua baino persona gehiagok emoten badabe izena, zozketea egingo da eskatzaile guztien artean. Prezioak 70 eta 100 euro bitartean dagoz Diman errolatuentzat eta 90 eta 140 bitartean ez errolatuentzat.

### Lemoa

Urri lehenengoaren 6tik 13ra arte emon daiteke izena Udaleko Kultura Zerbitzuan, *Eskulanak, Informatika, Sukaldaritza* osa-

*suntsua, Birzikla-Artea* eta *Probetxua* atera zure Smartphone edo tabletari ikastaroetan parte hartzeako. Lehenengo biak ikasturte osorako dira, hau da bagilera artekoak. Beste hirurak barriz, lehenengo hiru hilabete hartuko dabe. Hau da, abendura arte.

Udalak antolatutako *Grafiti* ikastaroan parte hartzeako izena emoteko epea zabalik dago be 94 631 30 05 telefonoan edo [euskara@lemoa.net](mailto:euskara@lemoa.net) helbidean urri lehenengoaren 16ra arte.

Ikastaroak lau saio izango ditu, bariku-zapatu bitan eta teoria eta praktika landuko dabe ikasleak. Lehenengo saioa, urri lehenengoaren 20an izango da, barikuan; bigarrena, hurrengo egunean; hirugarrena urri bigarrenaren 4an eta atzena, 5ean. Barikuetan, 18:00etan hasiko dira eskolak eta zapatuetan, 10:30etik 13:00etarako ordutegia izango dabe. Ikastaroa doban da eta 15 lagunentzako lekua dago.

Euskereari jagokonean be, *Euskara eskolak* eta mintza taldeetan izena hilaren 23ra arte emon daiteke Udaleko Euskara Zerbitzuan. Berbalagunen parte hartzeako, barriz, ikasturte osoan emon daiteke izena.


Ikasturtearen atzen hiru hilabete, apiletik bagilera, *Hazkunde pertsonala* eta *Xaboiak egitea* tailerrak egongo dira.

Prezioak kontuan hartzean dabez ikasleak Lemoan errolatuta dagozan ala ez. Langabetuak eta ikasleak merkeago daukie.



Bediako edadekoak.

Argazkia: Bediako Udal aldizkaria.



**Arratia**  
Urbide eta zeberrioko  
**euskera**  
eta kulturearen alde

**Egin zaitez zeu be**  
Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateralako produktuak.  
Hamabostean behin sari izelen zozketan parte hartuko dozu.

**Degitu-lagun**

Hamabostero  
Degitu zeure etxean

Zertu Kultur Elkartea  
Berrao Plaza 21. 40112 Arratia

Izen-abizenak:  
Itelbidea:  
Herria:  
Telefonoa:  
E-posta:  
Urteko kuotea aukeratu: 35€ 55€ 75€

**begitu**  
mutila utzi ezazu



## IGORREKO "BAKALADEREA"

# Igorreko "Bakaladerea" euskal arrantzaleen atzen epopeiearen erdian

1960ko hamarkadan Igorren jardun eban IBESA makailao enpresek lotura handia euki eban sasoi haretan makailaoaren arrantzak bizi izan eban garapen eta osteko gainbeheregaz.

**Alvaro Rabelli**

Igorreko Urkizu auzoan, Arratia errekearen ertzean, erdi jausita baina, oindino zutunik diraeu sasoi baten jardura industrialia euki eben pabiloiak. Bertan Aranzazu garbitoki industrialia egon zan, baina adin batekoak ondo gogoratuko dabenez, bertan be, aurretiaz, arratiar askorentzat ezaguna izan zan "Bakaladerea" egon zan. Ha enpresek IBESA (Industrial Bacaladera Española S.A.) eukan izena, 1972an berrogei behargin eukazan, gehien-gehienak andrazkoak. Arrantza

portuetatik etorren makailaoa erdi gazitua, erdi izoztua, bertan garbitu, gazitu eta komertzializetako prestetan eben. 1966tik aurrera frigorifiko industrialen etorrereagaz bat makailao izoztua be lekua hartzean hasi zan. IBESA ez eban urte askorik gure artean emon, urterik oparoenak 1960ko hamarkadan emon ebazan eta 1970eko hamarkadarako kito egin eban, betirako egin be. Oindino batzuk-batzuk akorduan daukie IBESAko beharginak tranbian ixten eben arrain usainaren arrastoa, horregaitik ei ziran ezagunak.

IBESAren jardura, baina, tesuinguru berezi baten garatu zala esan geinke. Izan be, ez zan izan barrukaldean, portuetatik urrun, jardun eban arrain konserbera bakarra. Bere moduko enpresa asko loratu ziran 1940ko hamarkadaren amaieratik 1970eko hamarkadara bitartean. Enpresa horreek guztiak baeukiezan ezaguri komunak, hau da, makailao konserbak prestetan ebezan, asko eta asko barrukaldean kokatu ziran, itsasotik urrun; eta sortu eta desagertu sasoi beretsuan egin ziran, makailaoaren arrantzearen garapen eta osteko gainbehera-

gaz batera. Sasoi haretan euskal arrantzaleak Ternuako atzen epopeia bizi izan eben.

**Gerraondoko elikadura eta arrantza politikea**

Gerra Zibila amaituta gerraoste luze eta latza hasi zan Euskal Herrian. Errepresinoa, gosea, egoera ekonomiko tamalgarria nagusi ziran gerraosteko lehenengo urte hareetan. Euskal Herriko arrantza sektorea ez zan salbuespena, berau benetan egoera penagarrian egoan Gerra Zibila amaituta. Gerra bitartean ontzi eta tripulazino asko galdu ziran. Esan geinke

1940ko hamarkadaren hasieran ez egoala euskal arrantza flotarik. Frankismoak erregimen autarkikoa ezarri eban ekonomiarako eta berehala konturatu zan gosea sufriduten eban gizartea elikatu behar ebala, beraz, elikagaiak lortzeako baliabideak kosta ahala kosta bilatzeari ekin eutsan. Erregimenaren beraren bizirau-pena be horretan etzan. Orduan agintari frankistak begiak euskal arrantza flotan parau ebezan, oster be garatzeko laguntzen hasi ziran. Horretarako preso egozan arrantzaleak askatu ebezan, zigorrak leundu ziran eta armadoreai ontzi barriak egiteko diru-laguntzak eta bestelango erraztasunak eskaintzen hasi ziran. Emaitzak berehalakoak izan ziran, hamar urteren bueltan Euskal Herriko arrantza sektorea estaduko handienetako bat bilakatu zan. Ontziak modernizatu ziran, arrantzaleen bizi-baldintzak hobetu ziran eta arrantza industrialia garatu zan. Frankismoak baeukan janari iturri oparoa itsasoan.

Arrantzeagaz batera industria konserbera be garatzen hasi zan. Ez da harrizkoa IBESA eta bere moduko beste enpresa batzuk euren jardura barrukaldera eroatea, halango beste asko Araban eta Nafarroan zabaldu ziran. Izan be, makailaoa zan nekazari guneetan be, kostaldetik urrunetan be, gehien kontsumiduten zan arraina, gazituta luzaroan iraun ahal ebalako artean hozkailurik ez egoan etxeetan.

**Makailao arrantzearen susperraldia 1950eko hamarkadan**

Arrantza sektorearen garapen horretan makailaoaren arrantzeak berebiziko garrantzia euki eban. Hein handi baten munduko bigarren gerreak arrantza eten eban Ipar Atlantikoko uretan. Urteetako ustiapen falta horrek arrain-tokiak bete ebazan. Europak be, geulez, gerraren ondorioz gosea pasetan eban. Holan bada, Ipar-Atlantiko inguruko herrialdeak (Kanadak, Irlandak, Norvegiak...) atzera be arrain-tokiak zabaldu ebezan. Egoera horretan makai-

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA**  
• Psikologia  
• Logopedia  
• Fisioterapia  
• Ulermen tailerra  
• Jarrera arazoak  
• Emozioen tailerra  
• Psikomotriazitatea  
• Adimen emozionala  
• Trebetasun sozialak  
• Estimulazio goiztiarra  
• Eta askoz gehiago...  
652 702 650 / 672 481 370  
Lehendakari Agirre 4 · Igorre  
maite.eileke@gmail.com

**Kili-Kili**  
Arropa eta Puntukoak  
Lehendakari Agirre 10 · IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 63 81

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK  
Elexalde, 33 D · 1ºB · 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 621 64 62 - 908 864 018

**izkaifisios**  
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA  
Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 35 08  
igorre@izkaifisios.com  
ANDRA MARI KLINIKA  
Pontzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
galdakao@izkaifisios.com



laoa izan zan jente asko elikatu eban arrain merke eta ugaria. Makailoa, ez ahiztu, elikagai iturri handia da, orioa be atarateko balio dau eta, aurretiaz esan lez, bere konserbazinoak abantaila handiagoak daukaz beste arrain espezie batzuen aldean, erraz sikatu eta gazitu leitekela kostaldetik urrun eroan eta konsumidu ahal izateko.

Gureari jagokonez, makailoaren arrantzea ez zan ezezaguna gure arrantzaleentzat, inondik be. Mendeak erozan arrain estimadu hau harrapetan euskal kostaldetik urrun, Ternuan, Groenlandian, Norwegian... Gerra aurrean Pasaiako Pysbe moduko enpresak ekin eutsen makailoaren arrantza industrialari. Famaduak izan ziran Gerra Zibilean euskal armada osotu eben "bou" ontzi bakaladeroak, Pysbe konpainiari bahituak. Pysbe

bera, ontzi barriakaz, izan zan gerra ondoren makailoaren arrantzara bueltau zana.

**"Euskal arrantzaleak Ternuan bizi izan eben epopeiarik handiena"**

Gerra ondoko makailo arrantza honek euskaldunak Ternuara atzera be eroan ebazan. Baziran gitxienez bost mende euskal arrantzaleak Ternuako urak bisitetan ebezala, gehien bat balea eta makailoen bila. Dударик ez, Ternuako arrantza gogorrena suertau zan euskal arrantzaleentzat. Denpora hotza, etenbako ekaitzak, lan gogorak eta ontzietako bizi-baldintza eskasak benetan arrisku bilakatu eben makailoaren arrantzea. Artean, 1940ko eta 1950eko hamarkadetan ontzietan ez ei egoan komunik, janari ustela jan behar izaten eben eta istripuetarako botikinik be ez



"Ternuako urak itxita, bost mendetako ohiturari akabua emon jakon"

eroen. Bizi-baldintzak asko hobetu ziran hurrengo hamarkadetan, ontzizintzarako be bultzada handia izan zan. Bizi-baldintzen hobetze hori baina lar berandu ailegau zan, Ternuako arrain-tokiak agortzeko zorian egoznerako.

**Makailo arrantzearen gainbehera**

1970eko hamarkadearen hasikerako Ternuako arrain-tokiak gainustiatuta egozan, agortzeko bidean, eta atzenean Kanadako gobernuak makailoaren arrantzea debekatzea erabagi eban.

Makailoaren euskal sektorea krisialdian sartu zan, ontzi konpainiak errekarra jo eben eta arrantzaleak behar barik lotu ziran. Zenbait urtez euskal arrantzaleak euren agonia eroan eben Groenlandia eta Norvegiako uretara, halanda be, bertan be makailoa harrapetako debekua laster zabaldu zan. Harrezkero makailoa ez zan lehengo arrain ugaria eta merkea, inportazioak hasita garestitzen hasi zan, makailoaren industria ez zan hain errentagarria. Testu-guru horretan Igorreko bakaladeak be atek zarratu ebazan.

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

## Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordu-tegi zabalak.

Agirre lehendakaria, 4, Elexalde 10, Igorre  
94 631 56 57 / 607 632 916 · arratia@aek.eus

**Dirulaguntzak**

Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.

Zu hemen zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino gehiago Euskal Herri osoan

EUSKARA - IKASTAROAK



## MENDIA

## Gorbeako Gurutzea Athletic Peñagaz Gorbeira

## Erredakzioa

Areatzako Athletic-eko peñak Gorbeira igoera eta hildako bazkideai omenaldia antolatu dau. Aurtengoa 24. edizinoa da eta parte hartu gura dabena goizeko 09:00etan batuko dira herriko frontoian urri lehenengoaren 7an.

Kurutzean hamaiketako egin ostean argazkia aterako dabe. Hildako bazkideai omenaldia 14:30ean egingo deutsee Pagomakurren. Gero, sagardotegi erako bazkaria egongo da Trikitox-en eskutik Pagomakurren eguraldi ona egin ezker, bestela frontoian izango da.

Izen emotea zabalik dago hilaren 4ra arte Areatzako Motxo tabernan edo Zuzendaritza Batzordeko ki-deak hartu-emonetan ipinita.



## FUTBOLA

## Andra Mari Futbol Txapelketea Lemoan

## Erredakzioa

Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatuta, Andra Mari Txapelketea bigarren edizinoa jokatu da urri lehenengoaren 7an, 19:00etan, Arlonagusia zelaian.

Hiru talde saiatuko dira txapela eskuratzen: Lemoako Harrobi Klubeko nagusien taldea, Aurrera de Vitoria eta Lagun Onak B. Modu triangulatu jokatu da txapelketea, talde bakotzak 45 minutu.

Futbol taldea aurrendeporal-dian sartuta dagoala aprobezauz, Elizondo auzuneko jaietan parte hartzeako antolatuta dau Harrobik Andra Mari Txapelketea. "Jaietan parte hartu gura dogu eta holango txapelketa bat gustukoa dala uste dogu" azaldu deutso BEGITURI Alex Maguregi presidentek.



## PELOTEA

## Lemoa inguruko mendietatik bizikleta martxea antolatu dau txirrindulari alkarteak

## Erredakzioa

Lemoa Txirrindulari Elkartek eta Bizkaiko Txirrindularitza Federakundeak, Lemoa Bigarren BTT Martxea antolatu dabe urri lehenengoaren 15erako. Ibilbidea Lemoa inguruko mendietatik izango da eta 25 kilometro inguru izango ditu. Izena urri lehenengoaren 12ra arte emon daiteke [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean.

Proba 10:00etan hasiko da kiroldegian, eta amaitu be bertan amaituko da. Ha-ta guzti be, partaideak 08:00etatik 09:30era jaso beharko dabez dorsalak. Ibilbidea, seinalizata egongo da kartel eta balizakaz eta hornitze puntua egongo da ibilbide erdikaldean. Proba amaitutakoan opariak zozketatu dira.

Edozein motatako bizikletak hartu daiteke parte proba honetan.

## Bigarren edizinoa

Igaz hasi zan Lemoa Txirrindulari Elkartea Lemoan BTT proba antolatuta, Julen Zuberok txirrindularitza egindako ibilbidearen onarpen eta omenaldi moduan.

Igazkoa, BTT erlojupekoa izan zan, 13 kilometrokoa. Irabazlea, Castro Urdialeseko Miguel San-

chez Prado izan zan. Julen Zuberok Lemoakoak be hartu eban parte eta hirugarren egin eban.



## HERRI KIROLAK

## Ruth Linaza: "Herri kirolak Badaiotzeko udako entrenamentuak dira"

Uda osoan zehar herriz herri ikusi dogu Badaiotz sokatira taldeko Ruth Linaza tiralari lemoaztarra, herri kirol mota guztietako erakustaldiak egiten. Arabako Lasto Altxatze Txapelketan be hartu dau parte, baina sokatiran jarraituteko eta datorren urtean Munduko Txapelketan parte hartzeako helburu irmoa dauka kirolariak.

## Erredakzioa

## Arabako Lasto Altxatze Txapelketan hartu dozu parte.

Bai. Badaiotzeko tiralari naz eta gure helburu nagusia mundialerara joatea da. Eta joateko dirua behar izaten dogu. Laguntzak badaukaguz baina ez da nahikoa izaten. Orduan, udan herri kirol erakustaldiak egiten ibiltzen gara herriz herri. Erakustaldietan saiatzen gara talde bi antolatzen, alkarren kontrako erakustaldia egiteko.

Oin pare bat urte hasi ginan lastoagaz probetan. Jon Lapatzaran entrenatzaileak animata eta nahiko txukun atera zan. Erakustaldietan jentea harrituta geratzen da, polito egiten saiatuten gara. Lehe-

## Lehenengoz egin da ezta?

Bai. Nik uste dot Euskadin egin dan andrazkoen lehenengo Lasto Altxatze Txapelketea izan dala. Nik Araban daukat fitxea eta Arabako txapelketetan ibiltzen naz. Garbiñe Lopez de Uralde Badaiotzeko taldekidea eta gaur egungo txapeliduna eta biok egon ginan.

Hiru neska ibili gara Lasto Altxatzen eta Andra Mari Zuriaren jaietan antolatu eben txapelketea Gasteizen. Foruen Plaza goraino beteta egon zan eta erantzukizun handia izan zan. Ni plazandrea naz, plazan gustura sentitzen naz baina zirrara sentidu neban.

Hemeretzi jasoaldi egin neban minutu bitan eta Garbiñek 24 jasoaldi. Fardoak 30 kilo ditu, 5 me-

trora altxau genduan. Txapelketetan minutu biko beharra egiten da.

Pozik nago. Ze azken finean, nire helburua herri kirolen neskak eta andrak plazak hartzea da. Urte asko daroaguz batzuek, beti ilunpean... Nik plazara urten gura dot eta lana patxadaz egin, beste batzuentzat eredu izateko. Ez da-eta erraza androntzako herri kirolen sartzea.

## Herri kirol txapelketa mistoetan be ibiltzen zarie.

Bai. Trontzan, Arabako Txapelketa mistoa, ofiziala dana. Arabako herrien arteko Txapelketan kirol batzuk mistoak dira be. Herri kirolak honek dira: lokotx biltzea, lasto altxatzea, ingudea, zakulari, txinga eroatea, trontzea, azkorea eta sokatirea. Azkorea eta lasto altxa-

tzea izan ezik, besteak mistoak dira herri artekoan. Igaz lau talde egon ginan, eta aurren, Badaiotzen gehiengoa Barrundiakoa danez, Udak taldea antolatutea eskatu euskun. Aurren, bost talde izan gara: igazko laurak eta Barrundia.

Sokan be talde misto baten entrenetan hasi gara Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketan parte hartzeako. Herri kirolen olimpiada moduko bat da. Igaz Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldea lehiatu ziran. Oin 3 urte Arabako Federazioak esan euskun Araban gizonezkoetan sokatira talderik ez dagoenez, ea zergaitik ez ginan joaten andrazkoak. Eta Badaiotz joan zan gizonezkoen kontra lehiatzera. Bagenkian ez geunkala zereginik, pisuan askoz beherago gagozalako, baina helburua zan txapelketa horretan sartzean hastea.

Hori izan zan parte hartu genduan lehenengo aldia eta hurrengo urtean, sokatira mistoa egon zan. Aurren, beste pausutxo bat emon da eta trontzea be mistoa izango da. Bagoaz neskak apurka-apurka bidea egiten.

Urrietan sokako entrenamentu espezifikoak hasiko gara mundialari begira. Datorren zezelean Irlandan izango da Munduko Txapelketea eta.

## Udara arte herri kirolak itxiko dozuez orduan.

Bai. Herri kirolak Badaiotzeko udako entrenamentuak dira. Neguan barriz, astean hirutan egiten dogu sokan.

Hamar tiralari inguru gara eta baldintza personalak talde baldintzatzen dabe. Norberaren bizimodua edo-eta bizitza personala urtero aldatuten da eta gatxa izaten da talde osoa batzea. Nik uste dot aurreko ikasturteko zortzi bat egongo garala.

Ni 2003an hasi nintzan sokan, oin dala 16 urte eta nire moduan gehienak. Gazte hartu sokea eta kirol honek harrapatu egiten zaitu. Intensoa da eta gure artean oso hartu-emon estua sortzean da. Talde giro polita daukagu eta azkenean horrek mantentzen dau taldea.



Ruth Linaza.



## LASTO ALTXATZE

# Jon Loiola Txapeldunorde Bilbon jokaturako Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelketan

### Erredakzioa

Beñat Amade getxoztarrak lortu eban txapela 22 jasoaldi eginda. Dimoztarrak 21 egin ebazan. Txapelketea Bilboko Ametzola parkean jokatu zan, abuztuaren 21ean.

Zazpi kirolari neurtu ziran. Amade eta Loiolaz gainera, Unai Ardeok, Ousmane Dramek, Joseba Legarretak, Bingen Erleagak eta Jokin Egiak be parte hartu eben.

Jon Loiola pozik agertu da bigarren postu horregaz. "Inoz baino parte hartzaile gehiago egon ziran. Nik ez neban oso preparazio ona eroan, baina gustura

geratu nintzan egindako lanagaz. Pozik. Nik ondo egin neban eta beste batek hobeto" azaldu deuto BEGITURI Bizkaiko txapeldunordeak.



## LASTO BOTATZE

# Lasto Botatze Txapelketako Euskadiko hamalagarren txapela irabazi eban Tubik

Abuztuaren 15ean jokatu zan Meñakan 2019ko Euskadiko Lasto Botatze Txapelketea eta Jose Martin Bustinza "Tubik" bere hamalagarren txapela lortu eban.



Jose Martin Bustinza "Tubi".

### Erredakzioa

Fardoa 6 metro eta 20 zentimetroko langoaren gainetik pasau arazo eban Tubik. Euskadiko hamalau Txapelketa ofizial jokatu dira eta hamalauak irabazi ditu atzen urteotan Gipuzkoako fitxagaz lehiatzen dan dimoztarrak. Beñat Obieta bizkaitarrak egin eban bigarren eta Juan Carlos Lopez arabarrak osotu eban podiuma.

### Euskadiko txapelketa guztiak irabazi dozuz!

Bai danak. Hau izan da hamalagarren txapelketea, atera kontuak! Eta beste txapel bi be badaukadaz ofizialak zirala pentsetan nebanak baina ez dira. Biak irabazi ostean Federazioan sartu nintzan lanean eta han "oindino ez da egin txapelketa ofizialik" esan

eusten. Ofizialak, hamalau.

### Txapelketak oin dala 14 urte hasi ziran?

Hego Euskal Herrian bai. Iparraldean, urte gehiago daroet. Hemen Bizkaian be egiten ziran txapelketak baina batez be erakustaldiak egiten dira.

### Badirudi ez dagoala inor zure marka arriskuan ipinten dauanik...

Ba lehenengo txapelketa ofizialean, 6,20 egin neban eta Anje Arbenoizek be 6,20. Bardindu egin genduan, nik irabazi neban txapela berak aurretik fallo egin ebalako. Hortik aurrera hor ibili gara beti, ni irabazten baina alboan edo Jose Lapazaran edo Anje Arbenoiz izan dodaz. Hortxe ibiltzen gara diferentzia handi barik.

Ez dago apenas jente barririk. Hau ez da asko eskatzen dauan kirola eta nik pentsetan dot ez dala kirol motza; baina erakarria be ez dau emoten danik. Diman egiten doguz entrenametuak eta inoz etorri izan da jentea ikusten, baina ez da kirolera hurbiltzen.

Markeari jagokonean, oin nik daukat, 6,30ean dago, baina gertatu leike urteren baten beste artista bat etortea eta kentzea.

### Lasto altxatza, lasto botatera baino jente gehiago animetan da?

Ez. Adibidez aurten Gipuzkoan 3 partaide egon gara. Eta Bizkaiko Lasto Botatze Txapelketan 7 dagoz. Euskadiko Lasto Botatze Txapelketan be 7 egon ginan. Urte batzuetan 11 egongo dira, edo 4, edo 7, edo...

pelketan be 7 egon ginan. Urte batzuetan 11 egongo dira, edo 4, edo 7, edo...

Ez da erraza. Oso jente gitxi gagoz. Askotan jentea beste kirolletan dabil, sokatiran, esaterako, eta bigarren kirola Lasto Botatzea, edo Ingudea izaten dau. Holan ibiltzen dira.

### Zenbat urte dira kirol honeetara dediketan zarala? Asko aldatu da publikoa, antolakuntza, kirolariak, kirola bera? Goranzko ala beranzko joerea ikusten dozu?

Nik 20 urte daroadaz eta nire ustez erakundeak ipinitako diruen arabera, ekitaldi gehiago ala gitxiago egiten dira, laguntasunen arabera. Nire ustez, aspaldion hohera ez doa. Bai ahalegindu ahaleginduten dira ahal daben guztia egiten baina ez daukie erraz. Federazioaren diru sarrearrak txikiak izango dirala uste dot. Sarritan ez dakigu guk be zelan hurreratu arazo jentea. Eta alkarreak ez badau ezer egiten jentea erakarteko, nok egingo dau ba?

### Bilboko jaietan txapelketak antolatuten dira, ezta?

Beti ez dira txapelketak izaten. Bilboko Areatzan batez be erakustaldiak egiten dabez. Inoz txapelketaren bat egin dot nik han.

Herri kirolak jaietan egiten dira askotan. Ez da egiten futbolearen moduan liga bat. Hemen, egiten dana da "jaiak non dagoz, ba?" eta herrietako jaietan izaten dira txapelketak.

## MENDI LASTERKETEAK

# Gorbeia Suzien Kilometro Bertikala hilaren 27an eta Lasterketa nagusia 29an

### Erredakzioa

Gorbeia Suzien mendi lasterketea urri lehenengoaren 29an izango da. Partaideak 09:00etan ekingo deusie 31 kilometro eta 2.400 metroko desnibela daukan ibilbideari. Bertan, 600 lasterketarik hartuko dabe parte.

Aurten ez dabe lasterketa herrikoirik antolatu, baina barikutik hasita domekara arte egun bakoitzean proba bat egongo da eta mendi giroa izango da nagusi Zeanurin. "Ez da egon motibo berezirik lasterketa herrikoia kentzeako. Ikusten genduan hor kilometro Bertikala egiteko aukerea eta gura izan dogu jente kopurua mantentzea, proba desbardin bi eginda" azaldu deuto BEGITURI Aitor Arbulu antolakuntzakoak. Gainera, domekan lasterketa bakarria egonda, ez da hainbeste jente sartuko mendian.

### Kilometro Bertikala eta Umeen lasterketea

Aurtengo edizinoko lehenengo proba Kilometro Bertikala izango da. Urri lehenengoaren 27an, barikuan, arrastiko 15:00etan emongo jako hasikerea proba honeri. San Justotik Lekandako tontorrera dagozan 4 kilometro eta 1.000 metroko desnibeleko ibilbidea egingo dabe 150 lasterketarik.

Zapatua, umeen eguna eta hurrengo eguneko lasterketea pres-

tatzeko unea izango da. Goizean, Umeen lasterketea eta umeentzako jolasak eta herri kirolak egongo dira. Arrastian barriz, Lasterketa nagusiaren gaineko berbaldi teknikoak egingo da. Bertan, lasterketearen datu teknikoak emongo dira eta lasterketari batzuen eta lasterketearen beraren aurkezpena egingo dira. Ondoren, Tio Teronen semeak jantzariak ikuskizuna egingo dabe Zeanuriko plazan.

Domekan izango da Lasterketa nagusia eta lasterketarien bazkariaren ostean amaitutzat emongo da mendi lasterketen jaia.

### Maila handiko lasterketariak

Lasterketari batzuk lasterketa bietarako emon dabe izena. "Horregaitik egingo dogu barikuan bertikala eta domekan Lasterketa nagusia. Biak egin gura dauzanak aukerea eukiteko eta zapatuan deskantsetako. Baina orokorrean, domekan korrika egiten datozenak barikuan ez dabe bertikala egingo" dino Jurek Ziemkiewicz antolakuntzakoak.

Aurreko urteetan parte hartu daben lasterketarien mailako partaideak espero dira aurten be. Dana dala, Kilometro Bertikaleko Munduko Kopako atzen proba jokatu da Gorbeia Suzien lasterketearen egun berean Grand Serre-n (Frantzia) eta euskal mendi lasterketari on batzuk han egingo dira.

## IBILALDIA

# Urri lehenengoaren 7an, Zeanuriko Ermiten XXXII. Mendi Martxea izango da

### Erredakzioa

Zeanuriko ondare erlijiosoa bisitatu eta natureagaz hartu-emonetan ipinteko aukerea emoteko helburuagaz, mendi martxea antolatu dau Joko Alaik hilaren 7rako.

Partaideak goizeko 07:30ean urtengo dira, aukeran dagozan hiru ibilbideetatik bat egiteko. Ibilbide luzeak 35 kilometro daukaz; ertainak 23 eta laburrak, 13 kilometro. Umeentzako ibilbidea be egongo da. Honek 09:00etan abiatuko dira.

Zeanurin parrokia bi eta hamazortzi baseleiza dagoz bakotxa bere berezitasunakaz eta historiagaz, udalerrira osatzen daben zazpi kofradietan sakabanatuta. Eta beste elementu batzuek batera, baseleizak auzuneai nortasuna emoten deutseen ardatzetako bat dira. Ibilbide luzea egiten dabenak hemeretziaren ondotik pasauko dira.

### Izen emotea

Izena egun berean emon daiteke



06:45etik aurrera. Prezioak aldatu egiten dira ume eta nagusientzat edo Joko Alaiko bazkide eta gainontzekoentzat.



## DIMETAL

**Destruction, Bonfire, Koma eta beste hogeitasei talde Dimetal jaialdian**

Destruction, 1982an sortutako thrash metal talde alemaniarra da kartelburu urri lehenengoaren 27 eta 28an izango dan Dimetal Fest jaialdian. Beste talde alemaniar ezagun batek be joko dau, Bonfire taldeak hain zuzen be. Koma, Childrain, El Altar del Holocausto, Trallery, Legen Beltza, Rise to Fall, Soldier, Insaniah, Boneflower, Orion Child, Knives, Balmond, Strikeback, Hex, Fear Crowd, The Broken Horizon, Leyenda, Misanthropy, Elbereth, The Eleventh Plague eta Uckaia arratiarrak be izango dira aurten Dimako metal jaialdian.

**Erredakzinoa**

Destruction eta Bonfire nazioarteko taldeakaz, antolatzaileak salto kualitatiboa egin gura izan dabe. Gainera, eguraldi txarra egin ezker be gitxineko bat bermatzeko, karpa bat ipiniko dabe. Hori dala-eta, aurten lehenengo ordaindu behar izango da hainbat talderen kontzertuetarako. "Igazko maila ekonomikoki jasanezina izan zan Dimetaleroak elkartearantz" azaldu deutso BEGURI antolakuntzak. Eta gastuak kubriduteko eta karpea ipini ahal izateko sarrerera kobretea ebatzi dabe. Dana dala, "merkea izatea, jente gehienak pagau ahal izateko modukoa" izatea gura dabe.

Barikuko kontzertuak debalde izango dira eta zapatuan, karpapeko kontzertuak ordaindu behar harko dira.

Lau eszenaleku egongo dira, Koba Abaroa aretoan; Mari, frontoi txikian eta karpapean beste bi Lenny eta Doro izentau dabezanak.

**Kontzertuak eta beste jarduera asko**

Dimetal Fest ez da musika jaialdia bakarrik. Izan be, "helburua Dimetalen gure nortasunagaz zerikusia daukien jarduera batzuk egitea da, nortasun hori erakusteko. Eta familiagaz etorten diranak, egun osoan zehar beste jarduera batzuk euki dagiela ondo pasetako".

Holan, zapatu goizean Dani Alvarez EITBko kazetariak gidatutako mahai-ingurua egongo da Abaroa Aretoan, eta jaialdian joko daben taldeetako partaide batzuk egongo dira bertan. Bitartean umeentzako jolasak egongo dira plazan. Gainera, goizez eta arrastiz, Metal Azokea egongo da. Talde bakotxaren merchandisinga karpan salduko dan arren, gaiari lotutako hainbat produktu erosi ahal izango dira azokan.

Jarduera barriak be badagoz aurten. Metal-bertsoa, esaterako. Oihana Bartrak eta Oihana Iguaranek bertsoak botako dabez, gitarra jole batek metal musikea jo

bitartean. Eta eskupeleta partidua be egongo da. Dimako Amaia Alday eta Orozkoko Gentzane Aldai, Gernikako Olatz Arrizabalaga eta Lemoako Ainhoa Romeroren kontra. Idea da "partidua musikeagaz lagundutea". Irabazleentzako garaikurrak be metal musikeagaz loturea izango dau.

Bazkariari jagokonean, frontoian izango da 14:30etik, 16:00etara eta hiru menu egongo dira aukeran: sagardotegi menua, barazkijaleentzako menua eta umeentzako menua. Tiketak [Dimetalfest.com](http://Dimetalfest.com) webgunean eta Dimako Baltzola jatetxean dagoz salgai.

**Akanpalekua**

Debaldeko akanpalekua be egongo da igazko lekuan, Arratia egoitzaren eta errekearen ondoan. Aurten, domeka goizean, postutxo bat egongo da bertan armozau gura dabenentzat. "Tabernara joan beharra ez izateko, bertan kafea, zumoak eta jateko zeozer egongo da".



# ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
[alkizabal@alkizabal.net](mailto:alkizabal@alkizabal.net)

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIRUA ETA SALMENTA



## ONDAREA

# Gotorlekutik harago beste eremu batzuk aztertu dabez Lemoatxen Arkeologia ikasleak

Urtero lez, txanda bi egin dira Lemoatxeko Auzolandegietan. Lehenengoa, garagarrilaren 15etik 28ra izan zan eta txanda horretan Arkeologia eta antzeko ikasketetako 15 ikaslek hartu eben parte. Bigarren txanda, garagarrilaren 29tik abuztuaren 11ra izan da eta bertan nazinoarteko ikasleak Arkeologiaren metodologiako oinarriak ezetuteko aukerea izan dabe. Bigarren txanda hau, Nazinoarteko Auzolandegiak hain zuzen be, laburragoa izan da aurten, Aranzadik lehentasuna emon gura izan deusalako kanpaina arkeologikoari.



Alba Peña Muñoz.

### Erredakzinoa

Lemoatx 1937 Memoria Historikoa Errekuperetako Batzordearen ekimenez, 2013an Lemoako Udalak Eusko Jaurjaritzaren Auzolandegiak programan sartu ebazan Lemoatxeko lanak.

Aranzadi Zientzia Elkartean gidaritzapean, lehenengo urteetan lubakiak errekereteari ekin eutsien hur eta urrinetik etortitako gazteak. Oin bataila eremu zabalagoa aztertzea gura dabela dino Alba Peña Muñoz Aranzadiko arkeologoak. Hori dala-eta,

lehenengo txandan Arkeologia, Historia eta antzeko ikasketak eginda daukien edo egiten dabizanak hartu dabe parte, lan espezialduagoa egiteko.

"Gotorlekutik aldendu gura izan gara aurten. Parkinetik hur ibili gara lanean, han kanpalekua egon leiteken zantzuak dagoz eta. Baina baimenak eta denporak dirala-eta ezin izan dogu sail hau arkeologia mailan aztertu. Defensa sistemearen parte bat aztertu dogu ipar-mendebaldean, eta egitura desbardinak aurkitu doguz. Tiratzaile baten zuloa, babesleku txiki bat izan eitekena topau dogu" azaldu deutso BEGURI Aranzadikoak. Han, mobidutako lurra eta metraila asko topau dabe eta leherketa bat gertatu zala interpretatu dabe.

### Nazinoarteko gazteak metodologia ikasten

Bigarren txandan barriz, edozein ikasketa egindako mundu zabalako 20 gaztek hartu dabe parte. Urtero lez, lana egiteaz gainera, Lemoa eta Euskal Herria ezetu-

teko aukerea izan dabe. Baina aurten, lubakiak errekeretako lana egiteaz gainera, laborategiko lana eta oinarriko arkeologia ariketak be egin dabez; tartean, kota lekualdatzeak, marrazki arkeologikoa eta abar.

### Arkeologia soziala

Lemoatxeko batailako lubakiak berreskuratzeke lana herriaren ekimenez hasi zan Lemoan memoria lan bat moduan. Gaur egun, Lemoatx Gerra Zibilari jagokonean dagoan aztarnategirik garrantzitsua da, hasikerako espektatiba guztiak gaindituz. Baina memoriaren ikuspegiko helburuak beteteaz gainera, Arkeologia soziala egin gura dabe Aranzadikoak eta herrian banandu ezagutzak eta ekonomia. "Aurten, herriko jatetxeetan bazkaldu eta afaldu dogu, ekonomia bananduteko. Asmoa da proiektu hau gero eta sozialago egitea, herritarren parte hartze zuzenagaz".

Ate zabaleko jardunaldiak eta bisitak be egiten ditue Lemoatxen.

## BERTSOLARITZEA

# Arkaitz Estiballes eta Jone Uria bertsolariak Lemoan

### Erredakzinoa

Elizondoko andramarietako jaietan, bertso-bazkaria egongo da urri lehenengoaren 7an, 15:00etan, Lemoako Kultur Guneko plazan. Arkaitz Estiballesek eta Jone Uriak botako dabez bertsoak.

Arkaitz Estiballes Ormaetxea (Galdakao, 1977), bertsolaria izateaz gainera, bertso irakaslea eta bertso jartzailea be bada. Euskal Filologia ikasketak egin ebazan Deustuko Unibertsitatean eta ikastetxe eta bertso eskoletan irakasle ibilia da. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan txapela irabazi eban 2010 eta 2012an. 2001 eta 2005 urteetako Bertsolari Txapelketa Nagusietan be hartu eban parte. Estiballes Zeanuriri bizi da, eta EH Bilduko zinegotzia da han.

Jone Uria Albizuri (Algorta, 1990) bertsolaria eta matematikaria da. Matematikan lizentziaduna, doktooretza egiten dabil Euskal Herriko Unibertsitatean. Bertsolaritzeari jagokonean, 12 urteaz hasi zan Algortako Bertsolari Eskolan, eta ordutik bertan jarraitzen dau partaide zein eragile gisa. 2008an hartu eban parte lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalaurrekoetara helduz eta gerora finaletan ibili da, 2010, 2012, 2014, 2016 eta 2018an. 2009, 2013 eta 2017 urteetako Bertsolari Txapelketa Nagusietan be hartu eban parte.

## MENDI IBILALDIA

# Jentilak Diman mendi ibilbidea urri lehenengoaren 14an egingo da

### Erredakzinoa

Aurtengo Jentilak Diman mendi ibilbide mitologikoa maiatzaren 25erako egoan antolatuta baina eguraldi txarreko iragarpenak ziralda eta antolatzaileak atzeratzea ebatzi eben. Oingo hilean egingo dira orduan egin ez ziran ibilbide mitologikoa eta Akelarrea. Hitzordua, urri lehenengoaren 14an da, arrastiko 18:00etan, Indusi auzunean.

Baltzolako kobetara ibilbide mitologikoa urte birik behin egiten da eta ekitaldi bakotxean Indusitik urten eta Baltzolako kobetan zehar ibili ostean, partaideak Indusira itzultzen dira barriro. Ibilbi-

dean zehar, inguruko mitologia azalduteko geldialdi desbardinak prestatzen dabez antolatzaileak. Aurtengorako bost geldialdi antolatu dabez. Guztira hiru ordu inguru iraungo dau ibilbideak. Bertan ipuin mitologiko antzez-tuak, jantzak eta abestiak ikusi eta entzuteko aukerea izango da.

Ibilbidean, partaideak, laminak, jentilak, Sugoi, Akerbeltz, Basandere, Behigorri, Olentzero eta beste izaki mitologiko batzuk ikusteko aukerea izaten dabe. Amaieran, 21:00ak aldera, Akelarrea egingo da Indusiko landa baten. Akelarrean musika, jana eta edana gura adina egongo dala dino antolatzaileak.

Mitologia ezetuten emoteko antolatuten dabe Txumulueta Alkartea eta Dimako Udala Jentilak Diman. Aurtengoa bosgarren edizioa da eta barrikuntza moduan, lehenengo aldiz, Akelarrea egingo dabe Indusin ilundutakoan.

### Sarrerea bost euroko prezioan

Aurten lehenengoz sarrerea ordaindu egin beharko da. Antolatzaileak bost euroko prezioa ipini deutse sarrereari eta beragaz sorpresea be egongo dala agindu dabe.

Tiketak egunean bertan egongo dira salgai Indusin, ibilbidea egin aurretik erosi ahal izateko.

**V. JENTILAK DIMAN - 2019**  
Irailaren 14an

\* 18:00etan: **MENDI IBILBIDE MITOLOGIKOA**  
Baltzolako kobetan (urteera Indusi auzotik)  
sarrera 5 €

\* 21:00etan: **AKELARREA**  
Indusin

- Antolatzaileak: Txumulueta Alkartea eta Dimako Udala

- Ondoko alkardeen laguntzagaz: Dimako Eskola, Guraso Alkartea, Dimako Liburutegia, Zamakola Alkartea, Dimesten, Andraizea, Dantzari finak, Korua, Dimako Bertso-eskola.



## AGENDEA

### URRI LEHENENGOAK 3 AREATZA

Hilaren 19ra arte, Mendi Martxan izena emoteko epea zabalik [www.areatzakomendimartxa.blogspot.com](http://www.areatzakomendimartxa.blogspot.com) webgunean.



Hilaren 4ra arte, Gorbeako Gurutzea Athletic Peñak antolatutako Gorbeia igoerarako izen emotea Motxo tabernan.

#### DIMA

Hilaren 6ra arte, 2019-2020 ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea. Udaletxean.

#### LEMOA

Hilaren 16ra arte, *Grafiti* ikastaroan izena emoteko epea. Udaleko Euskera Zerbitzuan.

#### ZEANURI

Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten Alkarteak urri lehenengoaren 18rako antolatutako Bera-Hendaia urtekerarako izen emotea hilaren 13ra arte.

#### ZEBERIO

Hilaren 6ra arte, Austarri Mendi Taldeak antolatutako Europako Mendietan astegoen pasarako izen emotea [austarrimenditaldea@gmail.com](mailto:austarrimenditaldea@gmail.com) helbidean, 665 735 054 eta 656 415 597 telefonoetan, edo hilaren 6an 20:00etatik 21:00etara mendi taldearen lokalean.

### URRI LEHENENGOAK 4 ARTEA

09:00etan, Mikel Deuna Jubiladu eta Pentsionistak antolatutako ibilaldia. Plazea, Garbe (Igorre), San Migel ermitea, Torrea, Motxogan, Elezkano eta plazea. Amaitutakoan, hamaiketako plazan.

#### BEDIA

16:30ean, liburutegian 2019-2020 ikasturtea hasi eta Bebeteka eta urtebetetzeak ospatzeko lokalaren 2019-2020 ikasturteko zerbitzuai hasikera emon liburutegian; 17:00etan, ludotekan ikasturtea hasi.

16:30etik 19:30era, hilaren 13ra arte, Bediako pensionistek Udalak antolatutako hilaren 19ko urtekerarako izen emotea. (Arriaga Antzokira bisitea, bazkaria Maruri-Jataben, Gorliz). Liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 20ra arte, Udalak eraturako ikastaroetan eta Umeen Irakurle Klubean izen emotea liburutegian. Urri bigarrenaren 12an izango dan Campillo Bodegara urtekerarako izen emotea.

16:30etik 19:30era, hilaren 27ra arte, urri bigarrenaren 26 eta 27an Zugarramurdira egingo dan astegoen urtekerarako izen emotea liburutegian.

### URRI LEHENENGOAK 6 ARTEA

18:00etan, Arteako jaietako txupina. Ikusi jai egitaraua 5. orrialdean.

20:00etan, Torontile Serigrafia Artistikoak antolatuta, Mataderoan ate irekierea; 20:30ean, egin zure kamiseteta; 22:00etan, Mataderoaren hileteta; 22:30ean, Uckaia taldearen kontzertua.



#### LEMOA

Hilaren 13ra arte, 2019-2020 ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea. Udaletxean.



## Barsanti Teatro konpainiaren *Kalegorrian* obra Lemoan

Urri lehenengoaren 8an, domekea, arrastiko 19:00etan, Barsanti Teatro konpainiak *Kalegorrian* obra antzertuko dau Elizondon. Kale antzerki ikuskizun honek epaimahaiaren aitamen berezia jaso eban 2018ko Leioako Umore Azokan.

Antzezlanak edadeko bikote baten etxegabetearen gai gogorra landuten dau umorez, ikuskizun dibertigarri eta "ganberroan". Aldarrikapenak, momentu hunkigarriak eta sorpresa asko dagoz bertan. Maskaren kalidatea be aitatu behar da.

Barsanti taldeko kideak, Juanjo Otero, Aritza Rodriguez eta Pako Revueltas dira. Zuzendari lanak Revueltasek egiten ditu.

### URRI LEHENENGOAK 7 AREATZA

Gorbeia igoerea. Gorbeako Gurutzea Athletic Club peñak antolatuta. 09:00etan, frontoian batu; 11:00etan, hamaiketako kurutzetan; 14:30ean, hildako bazkideai omenaldia Pagomakurren; 15:00etan, sagardotegi erako bazkaria Pagomakurren eguraldi ona egin ezker, bestela frontoian egingo da.

#### ARTEA

00:00etan, ate irekierea; 03:30ean, AK DJ-a. Mataderoan.

Goizaldeko 03:30ean, jaietatik etxera bueltetako autobusa doban. Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta. 30 urtera arteko gazteentzat.

#### IGORRE

Arratia Motor Taldearen XVIII. Konzentrazinoa. 10:00etan, izen emotea Berezi tabernan, (10 euro); 11:00etan, Arratia bailaratik ibilbidea, pintxoak jateko geldialdiak barne; 13:30ean, helmuga Igorreko eskoletan; 14:30ean, bazkaria, izena emon dabenezat eta ostean jolasak; 18:00etan, Suger eta Rockovers taldeen kontzertuak; burrunzi-pintxoak izena emon dabenezat. Kontzertuaren atsedenaldian sari banaketeta eta zozketeta.

#### LEMOA

Elizondoko jaiak. 10:00etan, Eskolarteko Txirindulari Lasterketeta; 13:00etan, poteo musikatua Bikandi tabernatik hasita; 15:00etan, bertso-bazkaria. Bertsolariak: Jone Uria eta Arkaitz Estiballes Kulturguneko plazan (eguraldia txarra bada eskolako aterpean); 17:00etan, Harrobiko Andra Mari Futbol Txapelketeta Arlonagusian; 19:00etan, Taberna Ibiltariagaz, poteo musikatua.



#### ZEANURI

07:30ean, Zeanuriko Ermiten Mendi Martxea.

### URRI LEHENENGOAK 8 LEMOA

Elizondoko jaiak. 12:00etan, mezea; 17:00etan, umeentzako jolas eta tailerrak; 19:00etan, *Kalegorrian* kale antzerkia.

### URRI LEHENENGOAK 9 ARTEA

Hilaren 20ra arte, 2019-2020 ikasturteko ikastaroetan izena emoteko epea. Udaletxean.

### URRI LEHENENGOAK 13 BEDIA

21:30ean, zinea kalean, *Horman erlojua duen etxea* (*The House with a Clock in its Wall*) filma plazan. Edade guztietako publikoarentzat.

#### LEMOA

16:15ean, Ludotekea kalea hartuz. Eskolan.

### URRI LEHENENGOAK 14 ARRATIA

Goizaldeko 02:30ean eta 05:00etan, Galdakaoko jaietatik etxera bueltetako autobusa doban. Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta. 30 urtera arteko gazteentzat. Laboral Kutxan.

#### DIMA

*V. Jentilak Diman*. 18:00etan, mendi ibilbide mitologikoa Indusitik urtenda; 21:00etan, Akelarrea Indusin.

#### ZEBERIO

07:00etan, Austarri mendi taldeak antolatuta, astegoen pasa Europako Mendietan. Samelar (2.229 m.), Valdominguera (2.265 m.).



### URRI LEHENENGOAK 15 DIMA

Igitie Azokea.

#### LEMOA


10:00etan, Lemoa Txirindulari Elkarrekin antolatuta, 2. BTT Martxea eskolan. Izen emotea [www.kiralprobak.com](http://www.kiralprobak.com) webgunean.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Oroitze Eguna. Besaide (555 m.).



# AKIMIKO

Zorrozki-  
o



## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### MOTORRA SALGAI

125 ccko motorra salgai. Kymco Agility City. Prezio onean. Interesdunak 699 615 008 telefonora deitu.

#### AIREA GIROTZEKO GAILUA SALGAI

Airea girotzeko gailua saltzean dot, 800 euro, barri-barria. Egurrezko sehaska opari. Interesdunak 620 276 471 telefonora deitu.

#### TEILAK SALGAI

Baseri konponketa baten osteko kurbadun teila erdi-barriak saltzean dira. Prezioa 0,70 euro negoziagarriak. Telefonoa: 630 363 971.

### DANERIK ORTU BILA

Lur zati baten bila gabiz Igorren ortu txiki bat eta animalia batzuk ipinteko asmoagaz. Interesdunak 660 638 324 telefonora deitu.

#### ETXE BILA

Uritik alde egin guran Arratiako herri

baten alokairu bila dagoan Bilboko bikote gaztea gara. 685 787 387. Amaia eta Eneko.

#### LONJEA ALOKATZEN DA

Lonjea alokairuan Areatzan. 35 m<sup>2</sup> eta komuna. Egokia negozioa edo bulegoa jartzeko. Telefonoa 634 400 920.

#### IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, 4. DBHko Fisika eta Matematikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Telefonoa: 658 726 587.

**Zozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

BEGITUKO kamiseta bana.

Lurdes Ortega (Bedia)  
Maitane Olatz Bilbao (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean meda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [seimmeda@hotmail.com](mailto:seimmeda@hotmail.com)

*Kepa Intxausti*  
TAXI ZERBITZUA  
609421222  
IGORRE

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**begitu**  
mezuak doban

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 609 480 839 • 699 290 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3, 3a 48140 BIZKAIA  
Tel: 94 673 70 87  
Tel: 609 79 40 54

**ZEKUTZE**  
ZABETZEA  
Tel: 94 631 52 83  
Sabino Arana, 34 48140 IGORRE - Bizkaia  
[zekutze@topagunea.com](mailto:zekutze@topagunea.com)

*Pinturas Aratia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIZARGINAK**  
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukunduten dogu  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE





# BESTE 10 URTE BAIETZ!

Hamargarren urteurrena

## HASIKERAKOAK

Idar eta mendafin txupittoa

Onddo konfitauak arrautza gorringoagaz eta patata kremeagaz

Eskabetxe muskuiluakaz egindako fideua

## PLATER NAGUSIAK

Lupia alga pistoagaz

Arkume terrina cous-cousagaz

## POSTREA

Intxaur-saltsea Idiazabal bitsagaz

38€ BEZa barne

Errioxako ardao ondua JD, Bizkaiko Txakolina JD, ura barne

Zure menua, kristalagaz inguratutako geure

terrazan dastatzeko itzelezko ikuspegiagaz

[www.hotelbalnearioareatza.com](http://www.hotelbalnearioareatza.com) - [info@hotelbalnearioareatza.com](mailto:info@hotelbalnearioareatza.com) - 94 657 27 05

\* Abenduaren 31ra arte.  
\* Erreserba egin behar da aurretik.

